



Larraul erabat itxuraldatuko duten herri lanak hasi dituzte

ETXEAK ▶ 37 etxe berri eraikiko
dituzte, gehienak salmenta librean
eta 4 prezio tasatuan herrikoentzat

ZERBITZUAK ▶ Hartzaindegia, gazte
eta adinekoentzako lokalak eta
hainbat zerbitzu jarri nahi dituzte ▶ 4



Udaletxearen atzealdean eraikiko dute eraikin balioanitza, hartzaindegia eta hainbat zerbitzu eskaintzeko bertan. IMANOL GARCIA

TOLOSA ▶

Atletek lau domina Gipuzkoako Txapelketan

Gehienek markak
hobetu dituzte
pista estalian ▶ 3

IBARRA ▶

Garrantzi handiko garaipena lortu dute Burlatan ▶ 6

LEITZA ▶

Etxeak berritzeko eta enplegua sortzeko onurak ▶ 7

TOLOSA ▶

Inauteri bitarteko kultur egitaraua aurkeztu du Udalak

Antzerkia, pailazoak, zine-kluba eta
musika izango dira aste honetan ▶ 2

**HITZA-KO
JERTSE BERRIA
ESKURA**

Gertuen duzun
egoitzan
lor dezakezu

Zatoz zurearen bila!

TOLOSA • LEITZA

KULTURA ▶

Inauteriei heldu bitartekoak

Tolosako Udalak askotariko ekitaldiak prestatu ditu hilabete amaiera bitarte

IRATXE ETXEBESTE

Gabonetako oporraldiaren ostean eta Inauteriak hasi aurretik, makina bat ekitaldi izango dira herrian ikusteko eta entzuteko moduan. Antzerki emanaldiak, musika kontzertuak, hitzaldiak, proiektzioak... Askotariko ekitaldiak prestatu ditu Tolosako Udalak egunotarako. Haurrek, gazteek eta helduek; guztiak izango dute aukera zer egin erabakitzeko. Hona hemen, ekitaldiz ekitaldi eta egunez egun, herriko gune ezberdinetan izango diren ekimenak zerrendatuta:

ANTZERKIA

'Paradero desconocido'. Ttamtaka Antzerki Taldeak ekoiztutako *Paradero desconocido* antzezlan eskainiko dute hilaren 14ean, ostiralarekin. Leidor zinema Jauregian. Gaueko hamarrak eta erdietan hasiko da ikuskizuna, eta sarrerak Kultur Etxean eskura daitezke, goizez edo arratsaldean, emeraldiko eguna bitarte. Sarrerak geratuz gero, lehiatilan ere jarriko dituzte salgai egun berean, gauean.

HAUR ANTZERKIA

Gari, Montxo, Jose Lontxo, Txan Magoa eta Elvi sabeliztuna. Haurrentzako saio berezia prestatu dute Gari, Montxo eta Jose Lontxo pailazoek Txan Magoarekin eta Elvi sabeliztunarekin batera. Hilaren 15ean, larunbatean, eskainiko dute emanaldia, Leidor zinema aretoan, 17:00etatik aurrera.

'Xurdirin'. Xurdirin taldearen *Xurdirin kobazuloan galdurik* ikuskizun berria hilaren 22an, larunbatearekin, eskainiko dute Leidor zinema aretoan. Haur antzerkia egiten du talde horrek, eta 16:30ean hasiko da emanaldia.



Idolia Iraola soprano tolosarrak kontzertua eskainiko du herrian. o. e.

ERAKUSKETAK

'Azken lanak'. Carmelo Ortiz de Elgearen *Azken lanak* erakusketa Aranburu Jauregian izango da ikusgai, hilaren 21etik martxoaren 5era. Astelehenetan eta jaiegunetan izan ezik, egunero ikus daiteke, 17:30etik 20:30era.

'Lurraren kolorea'. Txomin Txuekaren *Lurraren kolorea* izeneko argazki erakusketa Aranburu Jauregian izango da ikusgai, hilaren 21etik martxoaren 6ra. Egunero ikus daiteke erakusketa, astelehenetan eta jaiegunetan izan ezik, 17:30ak eta 20:30ak bitartean.

GAZTE TOPALEKUA

Asteburuetan. Urtarrileko asteburu guztietan zabalik izango da Gazte Topalekua gazte-txoentzat. Larunbat eta igandeetan, Kultur Etxeko areto nagusian askotariko ekintzak prestatuko dituzte hezitzaileek 16:30etik 20:30era.

HITZALDIA

Yoga elkarte. Tolosako Yoga

elkartearen eskutik, hitzaldia izango da hilaren 21ean Kultur Etxean. Hitzaldiaren ordua zehazteke dago oraindik.

IPUIN KONTAKETA

'Bi eta zazpi edo ez zazpi eta bi'. Haur Liburutegiak antolatuta, *Bi eta zazpi edo ez zazpi eta bi* ipuin kontaketa saioa izango da hilaren 28an Kultur Etxean. Asvineneak ekoiztutako proiektua da, 3 eta 9 urte bitarteko haurrei zuzendutakoa. 18:00etan eskainiko dute ipuin kontaketa emanaldia.

MUSIKA

Idoia Iraola. Idoia Iraola soprano tolosarrak kontzertua eskainiko du hilaren 21ean Musika Eskolaren eraikinean. Ez dago emanaldiaren ordua zehaztuta oraindik.

Kokein eta Sega Sound Killers. Hilaren 14ean, ostiralarekin, Kokein eta Sega Sound Killers musika taldeen kontzertua izango da, 22:30etik aurrera, Bonberenean.

Fantastic Fallow, Basque Country Pharaons eta Black

Diamond. Hiru talde horiek kontzertua eskainiko dute hilaren 15ean, larunbatearekin, 22:30etik aurrera Bonberenean.

Boikot eta Kalean. Madrilgo Boikot eta Kalean musika taldeek kontzertua eskainiko dute hilaren 21ean, ostiralarekin, Bonberenean. 22:30ean hasiko da emanaldia.

Heltrip. Bartzelonatik etorruta, Bonberenean ariko dira Heltrip taldekoak hilaren 28an, ostiralarekin, kontzertua ematen. 22:30ean hasiko da emanaldia.

Troika. Miguel Zeberio tolosarrak zuzentzen duen Et Incarnatus orkestraren eskutik, *Troika* izeneko diskoa aurkeztuko dute hilaren 28an, ostiralarekin, Leidor aretoan. 20:15ean hasiko da emanaldia, eta Inauterien atariko kontzertua izango da. Inauteri piezen bertsiio berriak joko dituzte.

PROIEKZIOA

Euskal Mendi Federazioa. Euskal Mendi Federazioak antolatutako urteko gala hilaren 21ean, ostiralarekin, izango da Leidor zinema aretoan. Ordua zehazteke dago.

ZINE-KLUBA

'Lost in Translation'. Sophie Coppola zinema zuzendariaren *Lost in Translation* filma bihar eskainiko dute, 21:30etik aurrera, Leidor zineman.

'El regreso'. Andrei Zvyagintsev zuzendariaren *El regreso* filma Leidorren eskainiko dute hilaren 20an, ostegunarekin, 21:30etik aurrera. Veneciako zinema jaialdian Urrezko Lehoia eman zioten filma horri 2003. urtean.

'Negocios ocultos'. Stefan Frears zinema zuzendariaren *Negocios ocultos* filma Leidorren eskainiko dute hilaren 27an, 21:30etik aurrera.

ARTEA ▶

Idoia Elosegiren 'Haurdunaldia' erakusketa

Idoia Elosegik *Haurdunaldia* erakusketa jarri du Iruñeko Gotorlekuan. Haurdunaldiko bederatzi hilabeteetan sortu zitzaizkion sentsazioak eta sentimenduak hiru dimentsiotan adierazi nahi izan ditu erakusketa horretan. Hilabeteroko bizipenak barila metalikoz egindako eta paperez estalitako eskultura ezberdinetan transmititu ditu. Hilaren 15ean inauguratuko dute, 19:00etan Gotorlekuan.

SAGARDOTEGIAK ▶

Ainhoa Artetak zabalduko du txotx denboraldia

Ainhoa Arteta soprano tolosarrak zabalduko du aurtengo txotx denboraldia, gaur eguerdian, Astigarragako udaletxean izango den Sargardo Berriaren Egunaren baitan. 2004ko uztako sagardoa dastatzeko aukera izango dute bertara hurbiltzen direnek, eta Artetak kantatu egingo du ekitaldian. Tolosarrarekin batera, bertan izango dira Javier Clemente, Miguel Indurain, Joane Somarriba, Abraham Olano txirrindulari anoetarra, Julian Retegei eta Pedro Miguel Etxenike.

GIZARTEA ▶

Eskerrak San Silbestre krosetako laguntzaileei

Samaniego-Orixe ikastetxe-ko arduradunek, joan den abenduaren 31n izandako San Silbestre elkartasun krosetako antolatzaileek, eskerrak eman nahi dizkiete ekimenean laguntza eman duten guztiei, «haien bultzada zoriontzekoa delako; 2005. urte on bat opa dizuegu».

txokoa^{lagunen}

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ HITZARI 42 euroko diru laguntza ematen dioten harpidedunek HITZA egunero jasotzeaz gain **ABANTAILA EZBERDINAK** izango dituzte; harpidedunen txartela izango dute eta, besteak beste, HITZAK egiten dituen zozketetan parte hartzeko aukera izango dute.

▶ HITZAren laguntzaile izan nahi baduzu, deitu **943 30 43 46** telefono zenbakira.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

ARETO FUTBOLA ▶

Etmetik kanpora lortutako lehendabiziko puntua larunbatean, Ourenseren aurkako partidari

Bina berdindu zuten Hegoalde eta Ourensek; Lopezek eta Aldezabalek sartu zituzten golak

L. MONTES

Eguberrietako atsedenaldia-
ren ondoren, Ourense (Gali-
zia) jokatu zuen partida Hego-
alde. Bina berdindu zuten bi
taldeek, eta egun sailkapeneko
hamaikagarren postuan dira
tolosarrak, 14 punturekin.

Partida hasi eta berehala,
Ourenseren joko motela nagu-
situ zen kantuan. Hegoalde
bere jokoa egiteko aukera gu-

txi zuen, eta galiziarrek erritmo
lasaiarekin egiten zituen jokal-
diak, baloia astiro mugituz eta
kantzako posizioari tinko eu-
tsiz. Haiek sartu zuten lehen
gola; Ourenseren nagusitasu-
nak, baina, ez zuen luze iraun,
sei minutu beranduago ber-
dinketaren gola sartu baitzuen
Maider Lopezek.

Bigarren zatian ez zen alda-
keta handirik izan, eta Hegoal-
de lan dezente egin behar

izan zuen galiziarren ohiturei
eusteko. Ourensek sartutako
bigarren golari, hala ere, eran-
tzun egin zioten Tolosakoek,
2na berdinduz Itziar Aldezaba-
len golari esker.

Arazo pertsonalak zirela eta,
hasiera batean Aldezabal Gali-
ziara joan ahal izango zen ez
zegoen argi; baina azkenean
jokatu ahal izan zuen, eta gol
bat sartu, gainera.

Virginia Amilibia Hegoalde-

ko entrenatzailearen iritziz,
«kantxa zaila egin zitzaigun.
Lurra irristakorra zegoen, eta
ez zen erraza posizioei eus-
tea».

Emaitzaren inguruan, bestal-
de, «bi taldetako edozeinek»
irabaz zezakeela azaldu zuen
entrenatzaileak: «Garaipeneko
hiru puntuak airean geratu di-
ren arren, etxetik kanpora lor-
tzen dugun lehendabiziko pun-
tua da, eta oso gustura gaude».

OURENSE ▶ 2

HEGOALDE ▶ 2

Ourense. Irene Pintos,
Andrea Freison, Tania Navoa,
Beatriz Ceijas, Cecilia Puja,
Silvia Vazquez, Pilar Perez,
Jenny Fernandez, Marta
Rodriguez, Maria Otero,
Veronica Touzo, Maria
Moreiras eta Natalia Palacios.
Hegoalde. Lurdes Zuriarrain,
Itziar Aldezabal, Isa Barrio,
Miriam Prados, Maider Lopez,
Miriam Arana, Esther Videra,
Gema Zelaia eta Naiara Mayo.
Golak. 1-0: Oterok (12m.);
1-1: Lopezek (18m.);
2-1: Oterok (24m.);
2-2: Aldezabalek (28m.).

MINTEGIA ▶

Segurtasuna interneten izango dute hizpide bihar

Miramón Enpresa Digitalak antolatu du, autonomoentzat eta mikroenpresentzat

L. MONTES

Miramón Enpresa Digitalak informazio teknologiei buruzko beste mintegi bat eskainiko du, bihar, 18:00etan, Tolosaldea Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutuan. Autonomoei eta mikroenpresei dago zuzenduta. Herrian egin den hirugarren saioa da, eta segurtasuna interneten da aukeratutako gaia.

«Interneta enpresek eguneroko jardueretarako erabili ohi duten erreminta bihurtu da. Hala ere, horren inguruan zalantza ugari sortu ohi dira. Horregatik, birusak, segurtasun kopiak, zabor-posta edota Datuen Babes Legearen eskakizunak jorratuko ditugu, besteak beste, mintegian. Profesionalek Internetak eskaintzen dituen enpresa alorreko aukeretara modu seguruan eta, horrenbestez, eragingarrian nola moldatu jakin dezaten antolatu dugu», azaldu dute.

Doakoa da mintegia. Izena eman nahi edo informazioa jaso nahi dutenek 902 252 595 telefono zenbakira dei dezakete, edo cursos@mira-
mondigital.com helbidera mezu bat idatzi.

ATLETISMO ▶

Lau domina Pista Estaliko Gipuzkoako Txapelketan

Bikain aritu dira Tolosa CFko atletak; gehienek beren markak hobetu dituzte

LEIRE MONTES

Bikain hasi dute urtea Tolosa CFko atletak. Pista Estaliko Gipuzkoako Txapelketan hartu dute parte asteburuan, Donostiako Belodromoan, eta lau domina jantzi dituzte: Eva Zulaika, Amaia Seguroa, Iban Gallego eta Iker Albisu podiumera igo dira; atleta gehienek, gainera, markak hobetu dituzte.

Eva Zulaikak, bere lehen lasterketan, nagusitasuna osoz irabazi zuen 400 metrotako proba. «Hasieratik jarri zen lasterketa buruan. Bere markarik onena izan ez arren (1.00.49), lehen proba izateko oso ondo dago. Txapelketetan sartzen den heinean, neguko entrenamendu gogorren emaitzak aterako dira», azaldu dute taldeko ordezkariak. Proba berean, Amaia Seguroa hirugarren izan zen, bere marka segundo erdia hobetuz (1.02.42), eta Espainiako Txapelketan parte hartzeko minimoatik 22 ehunetara geldituz. «Azken bi astetan osasun aldetik kili-kolo ibili dela kontuan izanik, berehala lortuko duelakoan gaude».

Iban Gallegok txapelketako lehen urrezko domina lortu zuen 60 metro hesietan (8.94). «Oraindik bere sasoiatik urrun egon arren, lasterketa honek kontziantza emango dio».

800 metrotan, Iker Albisuk brontzezko domina lortu zuen, baina ezin izan zuen gainditu bere denborarik onena; Iker Mansok bigarren postua eskura zuenean zaintiratu bat izan eta lasterketa utzi behar izan zuen. Leire Agirrezabala laugarren izan zen, bere markatik gertu. «Ausartago korrika egin duenean hobetuko du».

200 metrotan Eva Zulaikak 27.16 egin zuen, eta Amaia Jauregik 27.53. «Bik finalerako sailkatu ziren, baina Evak ez zuen parte hartu aurretik 400 metrotan aritu zelako; Amaia laugarren izan zen, 27.54 denborarekin, eta pista estaliko bere marka hobetu zuen».

60 metrotan Asier Aierzak eta Mikel Munarrirek markak hobetu zituzten. Eli Ferrero aurreko asteko markatik (8.54) gertu gelditu zen.

Bestalde, aurreko astean, Oihane Vazquezek Espainiako Txapelketan parte hartzeko minimoa lortu zuen 1.500 metrotan, 5.08 markarekin.



Amaia Seguroa —ezkerrean— eta Eva Zulaika —erdian—. HITZA

KEY-LAN
Sarrailegintza
Nafarroa etorb, 13 behea - TOLOSA
Mug.: 670 41 79 22
Tel./Faxa: 943 65 03 13

MENDI-ALDE
Eguneroko menuak eta karta **Jatetxea**
Bataioak, Jaunartzeak,...
San Esteban auzoa, 39 • ☎ 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

LARRAUL ▶ HIRIGINTZA

Herria aldatuko duten lanak

Eraikin balioantza eta 37 etxebizitza eraikiko dira, horietatik lau prezio tasatuan herritarrentzat

IMANOL GARCIA

2003ko udaran Larraulen arau subsidiarioak aldatu zituzten eta horien ondorioz etxebizitzak egiteko aukera sortu. Guztira 37 etxebizitza egingo dira, gehienak salmenta librean eta 4 prezio tasatuan herritarrentzat. Guzti honek sekulako iraultza ekarri dezake herrira. Izan ere, gaur egun 175 biztanle inguru ditu Larraulek eta orain etxebizitza guzti hauek egin eta bertan jendea bizitzen hasten denean, herriko biztanleriak nabarmen egingo du gora.

Aldaketak ez dira izango herritarren kopuruan bakarrik. Udaletxearen atzean dagoen lursaillean hainbat etxebizitza egingo dira. Horiek eraikiko dituen enpresak eraikin baliontza altxatu beharko du ere. «Oso proiektu garrantzitsua izango da», azaldu dio Jon Urkaregi alkateak HITZARI. «Etxebizitza berriekin jende asko etorriko da bizitzera eta, beraz, herria asko hasiko da, bizi gehiago izango da. Horrek zerbitzu berriak eskaintzea ekarritzen du».

Egun udaletxearen eraikina erabiltzen da antolatzen diren ekitaldi guztietarako, «baina oso txikia gelditu da», dio Urkaregik. Horregatik apustu handia egin du orain Udalak eta 100 milioi pezetan inguruko kostua izango duen eraikina altxatuko da. Inbertsio oso handia da, jakinik urteko udal aurrekontua 32 milioi pezeta inguru izaten dela. Bai Eusko Jaurlaritzari, bai Foru Aldundiari eskatutako diru lagun-



Herriaren sarreran eginen ari diren etxebizitzak aurrera doaz eta aurtengo urte bukaera ingururako bukatuta egotea espero da. I. GARCIA

tzak eskatu dizkio Udalak, bestela ezingo zuen aurrera eramanez proiektua.

Hautzaindegia jarri nahi

Eraikin balioantza horretan, bere izenak adierazten duen bezala, zerbitzu ezberdinak kokatuko dira. «Alde batetik hautzaindegia jarri nahi dugu», azaltzen du alkateak. «Etxebizitza gehiago izateak ekarriko duen aldaketa nagusienetakoa herrian haur gehiago egotearena izango baita.

Bestalde, gazteentzako lokal bat jarri nahi dugu. Adinekoek ere bere lokala izatea nahi dugu, eguneko zentro bezala funtzionatu dezan. Medikua eta gizarte laguntzailea lortuz gero, horientzako ere leku bat egokitzea nahi dugu. Liburutegia eta KZgunea izatea eta soinketa eta ludotekarako gela bat ere bai. Azkenik, areto handi bat, ondo ekipatua, antolatzen diren ekitaldi ezberdinetako: hitzaldiak, antzerkiak, ikus-entzunezkoak, ...».

Udaletxe atzeko lur saillean

ere herritarrentzat izango diren lau etxebizitza adosatuko eraikiko dira, aurretik zehaztutako prezioan. Behin behineko zerrandan bederatzai herritarrek eman dute izena. Egun batzuetako epearen ondoren, behin betiko zerranda osatuko da eta ondoren zozketa egingo da etxebizitzak banatzeko. Lur sail berean, salmenta libreko beste lau etxe adosatu eta hiru bifamiliar eraikiko dituzte. Gaur egun lurra mugimenduak burutzen ari dira eremu horretan.

Herriaren sarreran salmenta libreko beste hamar etxebizitza bifamiliar eraikitzen ari dira. Espero da urte bukaerarako amaituta izatea. Frontoiaren azpialdean dagoen lur eremuan salmenta libreko hiru bifamiliar eraikiko dira. Bestalde, herriaren erdian dagoen Elizalde baserria bota eta salmenta libreko bost etxebizitza egiteko aukera dago. Eraikuntza lan guzti hauekin urte gutxi barru guztiz aldatuko da Larraulen aurpegia eta bizilagun berri ugari izango dira.



Euskal produktuak gure sukaldean

Urtarrilaren 23tik aurrera
egunero fitxa bat **DOAN BERRIAREKIN**

50 produktu 50 jabetxe

Fagollaga jabetxea, Zuberoa jabetxea, Mugaritz jabetxea, Akelarre jabetxea, Tubal jabetxea, Etxebarri erretegia, Hartza jabetxea, Argomaniz Paradore, Borda Berri jabetxea, Currito jabetxea, Les Pyrénées jabetxea, Portalón jabetxea, Fronton jabetxea, Astelena jabetxea, Casa Nicolasa jabetxea, Aloña Berri jabetxea, Martinez jabetxea, Etxanobe jabetxea, Casa Manolo jabetxea, Elkano jabetxea, Kabia jabetxea, Izkiña jabetxea, Jokin jabetxea, Urepel jabetxea...

Laguntzaileak:



Jantzi mantala eta hasi sukaldean!

Euskaldunok behar dugun

berria

IKAZTEGIETA ▶

Saharara bidaltzeko elikagaien eske

Aurreko urteen antzera, Sahararen aldeko Karabanarako elikagaiak biltzen ari dira; elikagaiak biltzen ari diren eskualdeko gainontzeko herrietan bezalaxe, hegaluzea oliotan, azukrea eta konpresak eskatzen dituzte. Elikagaiak eman nahi dituztenek, urtarrilaren 21a bitarte izango dute aukera; elikagaiak Ikaztegitako udaletxean, herri eskolan eta kiroldegian utzi daitezke.

UGARTE ▶

Elkartearen urteko bilera egingo dute, etzi

Etzi, urtarrilaren 14ean, urteko bilera egingo dute elkartean; 20:30ean izango da. Bertan, urtarrilaren 7an, hileko lehenengo ostirala izanik egitekoa zen kuota bilketa burutuko dute; horretaz gain, iaizko urteko kontuak eta batzorde aldaketa egingo dute. Urteko bilera horretan, bazkide izateko eskaera berri bat ere aztertuko dutela jakinarazi du Ugarteko Elkarte-ko Batzordeak.

ALDABA ▶



Xarpa (makurtuta erdian) Intxur elkarteko lagunekin; botatako basurdea zintzilik jarri zuten kanalean irekita sekatzeko. HITZA

Aurtengo lehenengo basurdea, 'Xarpa'-k

Larogei kilo inguruko basurdea bota zuen Xarpak. Bedaio inguruan; Intxur elkarteko lagunekin ehizatu zuten basurde arra. Orain dela urte dezente ari zen Xarpa basurdeak ehizatzen; berak botatako lehenengo basurdea da. Lagunartean zorte txarra duela esaten omen dute (zuhaitzean gora igo beharrean ikusi nintzen batean), azaldu du Xarpak. Hala ere, «oraingoan ehiztari ona naizela erakusteko aukera izan dute», azpimarratu du.

ALBIZTUR ▶

KZgunea zabalik asteazkenetan eta ostiraletan

Eusko Jaurlaritzaren ekimena den KZgunea Interneteko ikastaroak eman ditu iraila bitarte. Urtarrilaren 1az geroztik, ez da tutore iraunkorrik egongo bertan; hala ere, hamabostaldiro tutore bat egongo da erabiltzaileen zantalza guztiak argitzeko. Instalazioak erabiltzaileen esku jarraitzen dute asteazkenetan (16:00etatik 19:00-etara) eta ostiraletan (16:00-etatik 20:00-etara). Tutorearen bisitaz gain, mintegiak eta oinarriko ikastaroak emango dira.

ALEGIA ▶

Txintxarri Kultur Elkartearen urteko batzarra

Txintxarri Abesbatza Kultur Elkartearen urteko Batzar Nagusia egingo du gaur 21:00-etan kultur etxean. Iaz elkar-teen izan duen jardunaren balantzea egingo da. 2004ean egin diren ekitaldi eta kantu emanaldien, kultur elkar-teen izan dituen sarre- ren eta gastuen berri emango da bertan. Batzordean sartzeko hiru kide aukeratu-ko dira bozka bidez. Amaitze-ko, aurtengorako Txintxarri Txiki eta Txintxarri abesbat- zek dituzten aurrikuspenen berri emango da.

ALEGIA ▶ GAZTETXEA

Bihar izango da urteurreneko azken ekitaldia

Erraustegiei buruzko ikus-entzunezkoa eta hitzaldia izango dira bihar Gaztetxean 21:00etan hasita



Besteak beste, Kubako erritmoak izan ziren entzungai Gaztetxean egindako play-backean. T.GESTEIRA

OLAIA ESKITXABEL

Pasa den abenduaren 2an izan zen Gaztetxearen 17. urtemugako lehenengo ekitaldia; orduz geroztik, antzerki emanaldia, ikus-entzunezkoak, hitzaldia, musika kontzertuak, zine-kluba, afaria, haurren festa, mendi irteera, mus txapelketa, hitzaldiak... izan dira.

Urtemugako ekitaldiak etzi, urtarrilaren 14ean, amaitzea espero zuten; ordurako Iraola eta Pagadiren ikuskizuna zegoen antolatuta, baina antolatzaileek azaldu dutenez, «bertan behera geratu da». Hori delata, azken ekitaldia, gaur izango da. 21:00etan, erraustegiei buruzko DVDa emango dute

eta ondoren gaiaren inguruko hitzaldia izango da. Hori guztia, Gaztetxean izango da, noski.

Play-back jendetsua

Urteurreneko ekitaldien artean aipatzekoa da pasa den astean, urtarrilaren 7an, egindako *playback*. 200 bat ikusle bildu ziren; eta guztira sei izan ziren taula gainera igo ziren taldeak. Oso giro polita egon zela azaldu dute antolatzaileek.

Alegiako Gaztetxean, kubatarak, Eminem, Orquesta Mondragon eta Las beeges taldeak izan ziren entzungai. Maria Isabel ere izan zen bertan: *Antes muerta que sencilla* abestia eskaini zuen. Bederatzi urteko

gaztetxoak, Eurojunior txapelketa irabazi ondoren, Alegiako Gaztetxean abesteak poza handia ematen ziola azaldu zuen. Michael Jackson abeslaria ere izan zen Gaztetxeako *playback*-ean, baina duen auzia delata ez zuen adierazpenik egin nahi izan.

Playback amaitzean, parte-hartzaile guztiak taulagainera igo ziren; eta ikusle asko ere igo ziren dantza pixka bat egitera.

Urteurreneko ekitaldiak bihar amaituko diren arren, Alegiako Gaztetxeako erritmoa ez da geldituko. Besteak beste, asteartero zine-kluba izango da; perkusio ikastaroarekin ere jarraituko dute.

autonomozentzako eta mikroenpresentarako **mintegiak**

Segurtasuna Interneten, konpondu gabeko arazoa

Hirugarren mintegi honetan, **eraso, arazo-hauste edo ondare ezaren aurrean zure negozioa nola egokitzea eta babestea** dezakezun erakutsiko dizugu: birusak, segurtasun kopiak, zabor posta, Duhak Babesteko legea, etab.

Tolosaldea
urtarrilak 13
TOLOSA
Tolosaldea Larabe Heziketa Institutua
Ordulegia: 18:00-20:00

Informazioa eta irala emateko:
902 252 595
www.miramendigital.com
correo@miramendigital.com

GUTUN@K ▶



▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Futbito txapelketaz esateko falta dena

Joan den asteburuan eta Ibarroko udal kiroldegian, Gazte Asanbladak antolatzen duen 24 orduko IV areto-futbol txapelketa egin zen. Nahiz eta parte-hartzea antolatzaileek uste zutena baino baxuagoa izan, bizitako giroa eta ekitaldiaren garapena egokiak izan dira. Horren lekuko dira polikiroldegiko arduradunak. Gure zorionak parte-hartzaileei eta antolatzaileei. Era berean, eskerrak eman nahi dizkiegu, lan-egutegitik kanpo, gauean, goizaldean eta jai-egunetan lanean aritu diren kiroldegiko bi arduradunei.

Beste aldetik, eta Gazte Asanbladak egindako prentsaurrekoari dagokionez, geure burua behartuta ikusten dugu egungo udal batzarraren jarrerari buruz eman zuten informazio hori zabaldu eta zehaztera.

Badakigu Gazte Asanbladaren

izenean hitz egiten dutenak ez direla egungo udalbatzaren aldekoak. Hori publikoa da eta behin baino gehiagotan argi eta garbi gelditu da. Iritzi desberdina izateko eskubide guztia dute: askatasunean bizitzeko oinarritzko eskubide bat da. Hala ere, Ibarren eskubide hortaz askatasunez baliatzea nahiko genuke. Horrek ez du esan nahi justifikazina den hori justifikatzeko informazio okerra eman behar denik. Ez dagokigu guri baloratzeko informazio hori era kontzientean edo inkontzientean eman zen edo ez. Honekin oinarritzko den beste eskubide bat aipatu nahi dugu: errugabetasun-presuntzioa. Ibarren eskubide hori askatasunez gozatzea ere nahiko genuke.

1. Gazte Asanbladak ordaindu behar izan dituen 206 euroak ez dira fidantza bat, baizik eta kiroldegia erabiltzeko tasa. Joan den urteko ediziotik badakite antolatzaileek. Idatziz eta teknikariak zuzenean adierazi zien.

2. Erabilera tasa kobratzearen erabakia, oso ondo justifikatuta dator bi arrazoiengatik: lehena, jarduera ez delako doakoa eta dirua lortzeko egiten delako (HITZA 2005/01/05). Hori «diru irabazi-asmoko jarduera» deitzen zaio. Dirua zertarako den antolatzaileen erabaki askea da, eta horrek ez du inor behartzen helburu horiekin bat egitera edo parte hartzera. Bigarren arrazoiak zera da, txapelketa honen ondorioz kiroldegia bere ohiko erabileratik kanpo erabiltzen dela: gaueko, goizaldeko eta jai-egunetako ordutegia. Ohiz kanpoko erabilera horren kostua 1.800 euro baino gehiago da.

3. Aurreko datuak ikusita, oso zaila egiten zaigu ulertzea antolatzaileei ez zaiela bururatu ere egin Ibarroko herria (Udalak hartutako erabakiaren bidez) laguntzaile gisa aipatzea. Beraiek bakarrik jaingo dute zenbat diru jaso duten propagandan aipatutako eta HITZAN erreferentzia egiten zaien gainerako 17 laguntzaileengandik.

4. «Barra edo salmenta-postuak» ez jartzearen erabakia antolatzaileek jada ezagutzen zuten, eta ez dute bete. Ez da Gazte Asanbladari bakarrik aplikatzen, talde orori baizik. Erabilitako tonuaren ematen du berantzat jarritako arau «berezi» bat dela.

5. Gazte Asanbladak nahi izan duenean Kirol Batzordearekin harremanetan jartzeko aukera izan du. Egia esan, batzordea izan da, teknikariaren bidez, harremanetan jartzea bilatu duena eta gai guztiak behar bezala itxita utzea.

6. Orain arte argitutakoaren arabera, zaila da justifikatzea «Udalak jarritako eragozpenak», ez bada beraien borondatearen kontra egiten den oro «izorratze-asmorekin egindako zailtasunak» izatea. Are zailagoa da justifikatzea «ustezko zailtasunetan» oinarrituta txapelketa hau egitea kolokan jartzea. Gazte Asanbladak honakoa balortu beharko luke: 206 euroko tasa ordaintzeak, jakinda horrek zenbat kostatzen zaion Ibarra guztiari

(1.800 euro baino gehiago), kolokan jartzen baldin badu jarduera aurrera eramatea, agian ez du merezi. Eta merezi badu beharrezkoak diren baliabideak bilatu beharko dira, inor lotsatu gabe, eztabaida irekiaren bidetik, ados ez daudenekin argitasun eta errespetu osoarekin hitz eginez.

7. Sentimenduak sentimendu dira, eta beraiekin bat egiten hasi gara: gu ere nazkatzen hasiak gara. Alde batetik Gazte Asanblada «onak», «gogokoak» eta «biktimak» izan, eta beste aldetik Udala «gaiztoa», «gogoko ez izatea» eta «jazarlea» izateagatik.

Udalbatzak seriotasunez eta ilusioz lanean jarraituko du, nahiz eta presio mediatiakoak jasan, jakinda batzuetan asmatuko dugula eta beste batzuetan akatsak egingo ditugula. Guztiekin eta guztiaz hitz egitera irekita gaude, orain arte egin dugun bezala, nahiz eta talde gutxi batzuek kontrakoa esan.

CONSUELO ROMEO

(UDALAREN IZENEAN) ▶ IBARRA

IBARRA ▶ KIROLA

Urte berria puntuak lortuz hasi du nagusien taldeak

Garaipen garrantzitsua lortu zuen Ibarra Burlatan; datorren larunbatean atsedean hartuko dute jokalariek

IÑIGO TERRADILLOS

Ibarra areto futbol taldeak garaipen garrantzitsua lortu zuen pasa den larunbatean etxetik kanpo jokaturako partidaren. Hain zuzen ere, Burlatan jokatu zuen Elizbigela kiroldegian eta Burlatakoak 5-9ko emaitzarekin hartu zituzten mendean.

Itxuraz, ez zirudien partida erraza, burlatarrek bakarra galdu baitzuten ordurarte euren etxean. Hori gutxi balitz,

Pradosen baja du une honetan Ibarroko taldeak.

Eta gauzak ezin ziren okerrago hasi ibartarrentzat, partida hasi eta hirugarren minuturako defentsan hutsegite bat egin ondoren etxekoek sare barrura sartu baitzuten. Baina Ibarra amore eman ordez, gogor ekin zion eta pixkanaka baloiaren jabe egin zen.

Horrela, segituan etorriko zen berdinketa; talde osoak parte hartu zuen jokaldian az-

kenean Ayerza gazteak lortu zuen Burlatakoen atezainaren sare barruan sartzea. Aipatzen aitezain honen lana, norgehiagokan lau penalti bikoitz gelditu zituen eta.

Hamaseigarren minutuan taldeko joko onaren ondorioz Ayerzak ibartarrak aurretik jarri zituen, beste behin atezaina gainditu eta gero. Hala ere, berdinketa iritsi zen atsedendirako bi minutu geratzen zirenean bere atean sartu zuen eta



5-9 irabazi zuen Ibarra. I.T.

Ibarra baloia. Berdinketarekin ekin beharko ziotela bigarren zatian irudienean kontreraso batean Ibarrokoak 2-3koa egin zuten eta emaitza horrekin joan ziren jokalariek aldagaitara.

Bigarren zatian gauzak ez ziren gehiegi aldatu, eta Ibarra

partidaren jabe izaten jarraitu zuen. Hautsi izan zen bosgarren minutuan boleaz 2-4koa egin zuena. Burlatakoak saiatu ziren partidari buelta ematen eta 3-4koa egin zuten berehala, baina hurrengo jokaldian Ibarra sartu zuen berriro.

Labakaren gola iritsi zen ondoren penalti bikoitz eta segidan Burlata 4-6 jarri zuen markagailua. Sei minutu gertatzen ziren amaierarako eta Karrekar defentsan baloia lapurtu eta oztopo guztiei aurre egitea lortu eta gero baloia sarean sartu zuen.

Minutu bat geroago Zabaloaren atean bukatu zuen baloia eta 5-7 jarri zuen orduan emaitza. Ayerza eta Hautsi izan ziren azken bi golak egin zituztenak eta azken markagailua finkatu zutenak.

Urtea ezin hobeto hasi du Ibarra, eta orain partida honetan egindakoak aztertu beharko ditu bide honetatik jarraitzeko. Datorren larunbatean atsedean hartuko dute.

iragarki laburrak ▶



Anoeta. 125 m2 eta garajea duen duplex etxebizitza ederra salgai.

Belauntza. 1.060 m2-ko pabilioia salgai; erabat argitsua eta garabiarekin.

Belauntza. 225 m2-ko pabilioia alokairuan; erabat argitsua. Ur eta elektrizitate instalazioa.

Donostia. 104 m2-ko etxebizitza salgai Colon pasealekuan. Ikuspegi zoragarriak eta erabat berritua.

Donostia. Rodil zeharkalean, apartamentua salgai. Berritua; kanpoaldera.

Gaintza (Nafarroa). Berrikuntza behar duen 3 solairuko baserria.

Ibarra. 95 m2-ko etxebizitza, oso eguzkitsua, kanpoaldera begira. Ikuspegi ederra.

Ibarra. 75 m2-ko pabilioia eta 2.500 m2-ko lur saila salgai. Nekazal ustiapenerako egokia.

Lizartza. 14.000 m2-ko pabilioiak salgai, 300, 450, 625 eta 900 m2-ko moduluetan, eraikuntza berrikoak.

Tolosa. Agintari kalean 75 m2-ko behar duen 3 solairuko etxea salgai.

Tolosa. Gernikako Arbola. 155 m2-ko etxebizitza. Kanpoaldera, berritzeko.

Tolosa. Gudari kalean, Samaniego kalearekin iskinean, 110 m2-ko etxea, kanpoaldera, eguzkitsua, igogailua. Berritzeko premia.

Tolosa. lurren etxebizitza salgai; hiru logela, sukalde, egongela, komona, bainugela eta trasteleku. Garajea aukeran.

Tolosa. Erdigunean, etxebizitza handia, igogailuarekin, garajerek gabe.

Tolosa. Lokal komertzialak, salmanten edota alokairuan (Gorosabel, lurre, Kale Nagusia, Larramendi...).

Trabak kentzeko lanean ari dira

LEITZA ▶ Leitzako Udalak herrian dauden traba arkitektonikoak kentzeko diru laguntza lortu zuen Nafarroako Gobernuak horretarako atera zuen deialditik eta lan horietxen burutzen ari dira, Zaraz S.L. eraikuntzako langileak egun hauetan. Hasiera batean 45 puntu baziren ere moldatzekoak, oraingoan, 28 puntutan kenduko dituzte espaloi-koskak, zebra-bideetako igarobidetan batez ere, ahal dela leun utziz, horrela ezinduek, haurren karrotxoek eta besteek ere, zailtasun gutxiagorekin ibiltzeko modua izanen dute. Herri lan hauen aurrekontua 39 mila euro ingurukoa da.

JAIONE ASTIBIA



LEITZA ▶ UDALA

Etxeak zaharberitzeko eta enplegua sortzeko onurak

Kasuan kasu, EIOZ delako zergaren zati bat hainako diru laguntza jasoko dute

JAIONE ASTIBIA

Etxeak zaharberitzen diren kasurako eta herrira etor litezkeen inbertsioentzat, EIOZ delako zergan oinarrituta, diru laguntzak emateko arauak erabaki berri ditu Udalak eta ordenantza banetan bildu.

EIOZ delako zerga hau —Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga— mota guztietako eraikuntza eta obren egileei Udalak kobratzen dien zerga da: dela etxe, pabilioi... edozein motatako eraikuntza berrietan, dela moldaketak lanetan... Lan motaren arabera, hauen aurrekontuari hainbateko portzentaia aplikatu egiten du hori.

Bada, etxeen zaharberitze, edertze eta apainketari dagokionez, eta iharduera ekonomiko bat herrian jarri, lanpostu berriak sortuko dituzten eragileek, zerga horren atal bat diru laguntza modura ematea eta kasuan kasu, onura ekonomiko hori zenbatekoa izanen

den erabaki ondoren, bi ordenantzetan jaso dira.

Etxeak zaharberitu nahi dituzten kasuan, arautegi horretan ageri denaren arabera, eraikuntzaren gaineko zerga hau ordaindu beharrik ez dute izanen, beti ere etxeak 20 urte baino gehiago dituen kasuan, «teilatua, teilatuko hodi eta hegoaldeko konponketa lanak», «fataxada eta leihoen konponketa eta margoketa lanak», «kontra-leihoak jarri, balkoiak itxi eta konpontzeak», «igogailua jartzeak» eta «ezinduentzat egin beharreko egokitze lanak» egin dituztenek. Kasu hauetan guztietan ordaindu beharko zuketuen EIOZren %100a jasoko dute diru laguntza modura.

Aparteko puntu batean jasota dauden arren, «inolak irabazteko asmorik ez duten entitateek egiten dituzten obrek» ere, ordaindu beharko luketen EIOZ delakoaren %100a jasoko lukete laguntza modura.

Bestalde, hutsik dauden etxeei ere erreparatzen die

arautegiak eta hauen zaharberitzea saritzeko modua jasota dago bertan, hauek alokeran jartzeko berritu edota moldatzen badira. Ondorioz, «jabeak etxe hori gutxienez 5 urtetarako alokatzen badu», aipatzen da, zergaren %10eko onura jasoko lukeela diru laguntza gisa. Era berean, «alokairua poltsa publiko baten bidez egiten bada, %30ekoa» izanen dela dago jasota.

Nafarroako Aldizkari Ofizialean behin betiko onespenera argitaratzen den unetik aurrera jarriko da indarrean, sei artikuluz osatutako arautegi berri hau.

Lanpostuei bulkatuz

Modu beretsuan jarriko da indarrean herrian kokatuko liraketeen jardueren ekonomiko berriei Udaletik bideratu nahi zaien laguntza ere.

Hori arautzeko, hauek sortuko lituzketen lanpostu kopuruari begiratu diote, eta horiek

herrikoak izatea lehenetsi, horrela herrira industriak etorrarazteko asmoz, «Udalak eskura dituen baliabide murriztak erabiliz», ahal diren erraztasunak bideratuz.

Besteak beste, lau modutako portzentaia berezi dituzte ordenantza honetan, EIOZaren kuota oinarri izanik: %40eko diru laguntza jasoko lukete, «4 lanpostu berri edo gehiago sortzen badituzte, beti ere plantilaren %30a gutxienez herriko den kasuan»; %60ekoa, sei lanpostu berri edo gehiago sortuz, plantilaren %40a bertakoa den kasuan; %80ekoa, 8 lanpostu edo gehiagorekin, plantilaren %50a herriko izanik; eta %20ekoa, 4 lanpostu berri edo gehiago sortuko liraketeen, plantilaren %40a gutxienez emakumezkoa eta herriko bada, beti ere.

Edozein moduz, laguntza ezin izan daiteke %90a baino handiagoa, eta kasuan kasu, aukera hoberena hautatu beharko omen lituzateke.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoetalde. Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarraldea. Osasun etx.: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Tolosa.
 ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 ▶ Asunzioz klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
 ▶ DYA: 67 25 36
Villabona. Anbulat.: 00 69 70

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
 ▶ Arramele-AEK: 67 12 14
 ▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Azpiroz, M.L. Amaroz 9 (Tolosa). 943 675 118
 Larraia, M.I. Elbarren 95 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.
 tolosa@tolosaldeko-hitza.info
Villabona-Aizt. 687 41 00 22.
 villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info
Anoetalde. 687 41 00 22
 anoetalde@tolosaldeko-hitza.info
Ibarraldea. 687 41 00 32.
 ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
 alegialdea@tolosaldeko-hitza.info
Leitzalde. 687 41 01 18.
 leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria. Tabernarako sukaldaria behar da asteburutan lan egiteko. 943 69 19 33.

Sukaldaria eta tabernaria. Sukaldaria eta tabernaria behar dira. Deitu 15:00etatik aurrera. 943 68 21 54.

Tolosa. Kamarera behar da, esperientziarekin, astean bi arratsaldetan lan egiteko. 943 67 04 46.

Anoeta. Neska euskalduna behar da Anoetako taberna batean lau orduz lan egiteko. 635 74 52 91.

ALOKAIRUA

Garajea. Garaje ibia alokatzen da. 609 43 59 07.

GALDUTAKOA

Fularra. Larrazko fularra galdu zen larunbat goizean Alegiako San Joan kalean. 943 65 06 54. Sarituko dute.

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko urtarrilaren 12a, asteazkena ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

11

hotzena

10

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA ARALARREN



Guardetxe: ez
Albi: ez



Pagomari: ez
Igaratza: ez



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak, harpide egiteko...)

943

30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Tolosa. 2005 denboraldiko arrantza federazioko lizentzia jaso daitezke hilaren gaur eta bihar 19:00etatik 20:30era Tolosako Arrantzaleen egoitzan (Soldadu kalea).
Zizurkil. Presoen borrokaz eta erreferendum europarrak herri batzarra Abulondo kultur etxean 20:30ean. Batasunak deituta.

ERAKUSKETAK

Alegia. Alatz Lopezen margoak Jubilatutik elkartean.
Tolosa. Jose Enrike Ceberioaren margoak Lanbroa tabernan.
Tolosa. Manuel Arretxeren margoak. Saikin tabernan.
Tolosa. Nekane Fernandezek margolanak Sorron koadro dendan.
Tolosa. Alberto Letamendiren koadroak Fronton kafetegian.
Tolosa. *Sudurrak. Naturako usain gozuez* Aranburu Jauregian.

MENDIA

Tolosa. Azkarate-Urrebu irteera antolatuta du Alpino Uzturrek iganderako. Irteera 8:00etan Gorosabeletik. Bost orduko ibilaldia da. Izen-ematea, Gudari 5, behean. 943 65 27 89.
Tolosa. 2005eko mendiko federatu txartela egin daiteke bi mendi elkarrean 19:30etik 21:00etara. Alpino Uzturren astelehen eta asteazkenetan eta Oargin astearte eta ostegunetan.
Tolosa. Alpino Uzturrek elurretara joateko autobusak antolatuta ditu. Urtarrilaren 22-23an Candanchu-Astun-Somportera eta otsailaren 5-6an Beretara. Informazioa eta izen-ematea Gudari 5, behean (943 65 27 89).
Villabona. Euskal Herriko hiriburuak uztartzuz egitasmoaren baitan, Aizkardik Zubillana-Orduña ibilaldia antolatuta du iganderako. Izen emateko 943 69 44 58 telefonora deitu edo Aizkardira azaldu osteguna baino lehen.
Villabona. Mendiko federatu txartela egin daiteke Aizkardin ostegunetan 21:00etatik 22:00etara.

Arropa estreinatzen

IRURA ▶ Euskaltel-Euskadiko txirrindulariek aurten erabiliko duten arroparen aurkezpena egin zuten Etxe-Ondon eta ondoren eskualdean entrenatu ziren



Irurako eta Anoetako haurrek argazkia atera ahal izan zuten Euskaltel-Euskadiko txirrindulariekin. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Euskaltel-Euskadi txirrindulari taldeak arropa berria estreinatu zuen atzo. Horretarako arropa ematen dieten Irurako Etxe-Ondo enpresan egon ziren eta gero eskualdean zehar aritu ziren en-

trenatzen 26 txirrindulariak. Eguerdian, Villabonako Olaederra kiroldegian dutxatu ondoren, Anoetako Bentaldea jantzetan bazkaldu zuten.

Entrenamendua hasi aurretik, tartetxo bat hartu zuten txirrindulari laranjek Irurako plazan zain zituzten haurrekin ar-

gazkia ateratzeko. Irurako Ikastolako haurrek eta Anoetako Ikastolako 5. eta 6. mailako haurrek txirrindulari ezagutuen aurrean jarri eta «Euskaltel, Euskaltel» oihukatzen hasi ziren argazkilarien aurrean.

Aurtengo denboraldian jantziko duten arropa Irurako

Etxe-Ondo enpresak egindako da. Aurreko urteko diseinua berdina du kamisetak. Aldaketa bakarra, eta derrigorrezkoa, Uci Pro Tour-en logoa jartzea izan da. Txirrindulariek soinean eramango duten ekipoa zenbait berritasun izango dituzte, Etxe-Ondoko Ramon Mendiburuk azaldu duenez: «Barruko kamiseta berria izango dute eta teknologia berria duten oinetakoak jantziko dituzte, ura barrura sartzen uzten ez dutenak». Orain arteko ildoari jarraituz, arropetan erabiliko ehunei dagokionez aurrerapenak egiten jarraitu du enpresa irurarrak. Guztira, txirrindulari bakoitzak 45 jantzi ezberdin erabiltzen ditu (maillotak, oinetakoak, kamisetak,...) eta denboraldian 20 maillot eta 20 kulot inguru erabiltzen dituzte.

Aurkezpenak ez zaizkie bukatu talde euskaldunari. Hilaren 27an, taldearen aurkezpen ofiziala egingo dute Hondarribiako Hondartzako kiroldegian. Egun horretarako, sortu berri den Irurako Peña Enara Euskaltel-Euskaditik azaldu dute, autobus bat eskaini diete talde laranjakoek afizionatuak aurkezpena eramateko.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Aritz Monreal Mitxelena. Gaur 3 urte.
Zorionak eta muxu handi bat ebekoen partetik.



URTE ASKOAN

Jesus Lopez Artetxe (Tolosa).
Gaur 9 urte. Abixbe, Amume, Abuelo, Simon eta gurasoen partez.

HITZA, zorion agurren

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, tartea ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara:
Araba etorbidea, 5 behean - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!